



NERABEENTZAKO ZERBITZUKO BARNE ARAUDIA

Legazpiko 12-16 urte bitarteko gazte guztiek Nerabeentzako Zerbitzuko erabiltzaile izateko eskubidea dute eta topagunean egoteko eta bertan dauden jolas mota ezberdinak erabiltzeko eskubidea dute.

Gazte-txokoa era egoki batean erabili behar da eta honetarako **beste gazteak eta hezitzaileak errespetatzea** ezinbestekoa da; baita eskura dituzun material ezberdinak behar bezala zaintzea ere. **Zerbait apurtzen bada erabiltzailearen ardura izango da.**

Nerabeentzako Zerbitzuko **BAZKIDEEK BAKARRIK** dute **GELA ITXIAK** erabiltzeko eskubidea. Hauek erabiltzeko honakoak kontutan hartu behar dira:

- Aldez aurretik eta honetarako prestatuta dauden orrietan izena eman behar da.
- **Erabiltzaile guztiak hartutako txandan zehar gelaren arduradunak izango dira.**
- Gela uzterakoan hezitzaileei abisatu behar zaie eta garbi eta gauzak zeuden bezala utzi behar dira, beste egun batean gela erabiltzeko eskubidea mantentzeko.
- Txandak errespetatu:
 - o **Ordenagailu gelan:** ordu erdiko txandak dira eta 2 pertsona ordenagailuko gehienez erabil dezakete.
 - o **Ikus-entzunezko gela:** ordu bateko txanda; pelikula ikusi ezker, txanda pelikularen iraupena izango du.